



## Nola egin Booktube?

- Hasteko liburua hautatu, irakurri eta gauzarik interesgarrienak apuntatu
- Beste booktuber batzuen bideoak ikusi (moodlen ereduak)
- Eredu onei erreparatu eta ikasi haiengandik.

## GIDOIA

- Zeure burua aurkeztu eta ikuslea agurtu.
- Iruzkinduko duzun liburua aurkeztu, ikusleari erakutsiz.
- Liburuaren titulua, egileak (idazlea/itzultzailea/ilustratzailea/argitaletxea), eta beste zenbait ezaugarri aipatu.
- Liburua bere testuinguruan kokatu (lekua, garaia pertsonaia nagusiak ...).
- Laburpentxo bat egin, baina ez kontatu dena, hurrengo irakurleak bere kabuz deskubritu nahiko ditu eta.
- Liburuari buruzko iritzia eman eta adierazi zergatik gustatu zaizun.
- Ikusleak irakurtzera animatu.
- Agurra.

## GRABAZIOA

- Aukeratu grabatzeko leku egokia, erakargarria eta isila.
- Grabagailua: telefono mugikorra, tableta, argazki kamera.
- Grabazio lekua ahalik eta isilena izatea komeni da.

## BALORAZIOA

- ✓ GIDOIA jarraitu da.
- ✓ Mezua MODU ULERGARRIAN eman da,
- ✓ Norberaren hizkeran edo batuan ZUZEN egin da.
- ✓ AHOTSA, TONUA, POSTURA, BEGIRADA ... egokiak izan dira.
- ✓ SORMENA, ORIJINALTASUNA.